

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 4/2022

ERABAKIA, (...) EUSKO LEGEBILTZARREKO (...) TALDEKO LEGEBIRTZARKIDEAK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA. KONTSULTA EUSKO JAURLARITZAKO GOI-KARGUDUN BATEK EGINDAKO JARDUERAK DIRELA-ETA EGIN DA.

1.- Etika Publikorako Batzordearen posta elektronikoaren postontzian (...) Eusko Legebiltzarreko (...) taldeko legebiltzarkideak bidalitako mezu elektronikoa jaso da. Mezu horretan, kontsulta egin dio batzorde honi Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 10. artikulua parte ez hartzeko eta inhibitzeko betebeharrak, eta Eusko Jaurlaritzako kargu publiko batek egindako zenbait jarduera aztertzeko eskatzen zaio.

2.- Zehazki, idazki horretan eskatzen da azter daitezela (...) Saileko (...)ren zuzendaria den (...) jaunaren jarduketak, bai eta (...) Saileko (...)aren zuzendaria zenean egindakoak ere.

3.- Kontsultak bi kontu azter daitezela eskatzen du, (...) jaunarekin lotuak daudenak: alde batetik, ingeniari-entrepresa bateko ingurumen-arduraduna izan eta gero Eusko Jaurlaritzako (...)aren zuzendari zela enpresa horrekin erlazioanatuak ingurumen-txostenak egitea, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzako (...)ren zuzendari eta (...) Administrazio Kontseiluko idazkari izanda, enpresa horri kontratuak esleitzen parte hartu izana.

4.- (...) jaunak Etika Publikorako Batzorde honi (aurrerantzean, EPB) igorritako kontsultan eskatzen da aztertzeko eta ebatzeko (...) jaunak, (...) enpresan lan egin eta gero, (...)ren zuzendari zela (...) enpresari onetsitako ingurumen-ebaluazio guztiak eta (...)ren Administrazio Kontseiluko idazkari zela (...)ri esleitutako lizitazioak.

5.- Etika Publikorako Batzorde honetan kontsulta hori jaso ondoren, (...) jaunari helarazi zitzaien, (...) jaunak aurkeztutako kontsultan azaldutako gertakari eta gogoetei buruz egoki irizitako

adierazpenak eta alegazioak igor zitzan. Urriaren 26an jaso zen batzorde honetan interesdunaren erantzun-idazkia.

6.- Horiek horrela, EPB honek, Etika eta Jokabide Kodearen (aurrerantzean EJK) 16.4 apartatuaren bigarren paragrafoak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du aho batez:

ERABAKIA:

I.- AURREKARIAK

1.- 2013ko maiatzaren 28an, Gobernu Kontseiluak Etika eta Jokabide Kodea onartu zuen, zeina 2016ko azaroaren 22an onartutako testu bateginean jasota baitago. Politikaren etika-zentzua berreskuratzea eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzea; bi helburu horiek lortzeko sortu zen Kodea.

Horretarako, aipatu kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkieken Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezen dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordetzea, haren eraginkortasuna sendotzea eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahalegintzea.

2.- Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen helburua da eginkizun publikoak dagokion betebeharrak etikoa eta eginkizun sozial bat betetzea, saiatzeko baita gizarteak interes komuna kudeatzen duenarengan jartzen duen konfiantza legitimoa mantentzen eta bizitza politikoan egiten duen jardunaren gardentasuna zaintzen.

Lege horren II. kapituluak eginkizun garrantzitsu hau du: kargu publikodunen Jokabide Kodea osatzen duten printzipio orokorrak ezartzea.

Kapitulu horren asmoa ez da soilik zerbitzari publikoaren eredia adieraztea edo horri buruzko informazioa ematea; izan ere, zerbitzari publikoa zaindu eta bermatu nahi da. Horrez gain, testu arauemaile bat ere bada, lege-mailakoa, karguari dagokion funtzio publikoan aritzean bete beharreko eginkizunak ezartzen baititu.

Ildo horretan, Etika eta Jokabide Kodeak bere egiten du 1/2014 Legearen II. kapituluaren edukia (kapitulu horretan arautzen dira kargu publikodunen Jokabide Kodea osatzen duten printzipio orokorrak).

Era berean, 1/2014 Legeak kargu publikoaren kontzeptua zabaltzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan zuzendaritza-eginkizunak betetzean kontrola bermatzeko eta gardentasuna sustatzeko asmoz. Horren arauketa egungo Etika eta Jokabide Kodean dago jasota.

3.- Etika eta Jokabide Kodeak bost balio ditu ardatz: integritatea; bikaintasuna; politikaren eta kudeaketaren arteko lerrotatzea; lidergoa, eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio hauek ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernu irekia; zintzotasuna eta interes subjektiborik eza; errespetua, eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta Etika Publikorako Batzorde honek haiek erreferentziatzat hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko kargu publikodunek eta beren borondatez Kodearekin bat egiten duten parekatuek nahiz Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonen helarazten dizkien gai eta zalantza etikoei.

4.- Horretarako, Etika eta Jokabide Kodearen 16.3 apartatuaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, Etika Publikorako Batzordearen eskumena da “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balioen, printzipioen eta jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea”.

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- Adierazi den bezala, (...) jaunak aurkeztutako idazkia jaso ondoren, (...) jaunari helarazi zitzaion, bertan aipatzen ziren gertaerei eta gogoetei buruz egoki iritzitako alegazioak igor zitzaion Batzorde honetara.

(...) jaunak igorritako erantzunean hau adierazten da:

“Azaldutako gaietara dagokienez, hemen nire erantzuna:

- *Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea aplikatuz, eskaeran adierazitako ingurumen-ebaluazioko prozedurei dagokienez, esan behar da aipatutako legean araututako nahitaezko ingurumen-erabakiaren eskatzailea, aipatutako kasu guztietan, dagokion udalerriko udala dela, ingurumen-prozeduraren*

funtsezko organoa den aldetik, bere udalerrian hirigintza-tresnak onartzeko eskumena duen administrazio publikoa baita.

- *Bigarren gaiari dagokionez, soilik azpimarratu igaro direla dagoeneko bi urte kargu publikodun naizenetik (2016. urtearen amaieran sartu nintzen (...)n (...)ko zuzendari izatera), 2016ko abenduan hasi bainintzen kargu publikodun gisa. (...)ko idazkari-karguari dagokionez, berriz, 2020ko irailaren 25ean hasi nintzen zeregin horretan, eta 2021eko martxoaren 31n bukatu. Horretaz gain, nabarmentzekoa da jasotako dokumentuan akats bat dagoela, hain zuzen ere aipatutako esleipenei buruzko zatian; izan ere, "Donostiako metroaren Mirakontxa-Easo zatia eraikitzekeko proiektuaren 2. faseko obra-zuzendaritzari laguntzeko zerbitzuari" buruzkoan, 2021eko maiatzaren 27an egin baitzen esleipena, nik (...)ko idazkari kargua utzi ondoren.*
- *Aurretik (...) enpresan egindako jarduera profesionalari dagokionez, adierazi nahi dut inoiz ez nuela kapital sozialean parte hartzerik izan, ez eta beste sozietate-harremanik ere, eta enpresa horrekin izandako harremana lan-eremura mugatu zela, enpresako langile izan bainintzen".*

2.- (...) jaunak egindako kontsultan bi gai ezberdin azaltzen dira, Etika Publikorako Batzorde honek banan-banan aztertu beharrekoak.

3.- Batzorde honen irizpenaren mende jarritako gaiak zehazki aztertu aurretik, adierazi behar da Etika eta Jokabide Kodeak interes-gatazkekin lotutako zenbait jokabide, jarrera eta portaera debekatzen edo saihestea exijitzen badu ere, gai horretan indarrean dagoen araudia –zehazki, kargua bete aurretik edo ondoren jarduera jakin batzuetan aritzeari buruzkoa– jasota dagoela Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunek eta haien parekatuek bateratu ezin dituzten jarduerak berariaz arautzen dituen arau juridikoan. Xedapen horretan diziplina- eta zehapen-araubidea aurreikusten da, eta, legezketasun-printzipioari jarraituz, lege-mailako xedapen bidez araututa dago, zehazki, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean.

Hain zuzen ere, Etika Publikorako Batzorde honek hasiera-hasieratik mugatu nahi izan du bere lana etikaren eremura, eta, bereziki, Etika eta Jokabide Koderaren beren borondatez atxikitzea erabaki duten kargu publikodunek eta parekatuek kodea betetzen ote duten jakiteko irizpenak ematera. Antolamendu juridikoa betetzea ez da inola ere hutsala; nolana ere, ez da batzorde honen eginkizunetako bat administrazio-jarduera baten legezketasunaren inguruko iritziak ematea edo, hala badagokio, goi-kargudunen jokabidearen zuzentasun juridikoaz aritzea.

4.- Lege-testu hori azaletik aztertuz gero, ikusiko dugu bateragarritasun-baimenak eta horien kudeaketa eta kontrola Etika Publikoko Batzordeaz besteko organoei gordetzen dizkiela. Horrela, aipatutako Legeak eta, zabalago, hura garatzen duen Dekretuak –156/2016 Dekretua, azaroaren 15ekoa, kargu publikodunen betebeharrei eta eskubideei buruzkoa– bateragarritasun-prozedura bat ezartzen dute hemen deskribatutako egoerarako.

Prozedura horretan baina ez da aurreikusten Etika Publikorako Batzorde honen esku-hartzea ezein fasetan. Izan ere, batzordearen jarduna, administrazio-kudeaketa zaildu ordez, kudeaketa hori legegileak eta Eusko Jaurlaritzak aldarrikatutako printzipio eta balio etikoei egokitzen zaien ebaluatzerara bideratuta dago.

Batzorde honek ezin du bere gain hartu elementuak epaitzeko eta balioesteko eginkizunik, zeina, eremu subjektibotik kanpo, legeak beste organo espezifikoko eta zehatz batzuen esku uzten baitu.

Horrenbestez, ez dagokio Etika Publikorako Batzorde honi zehaztea (...) jaunak (...)aren zuzendaria zenean ingurumen-txostenak egin izanak edo (...)ren zuzendari eta (...)ren Administrazio Kontseiluko idazkari zenean kontratu bat adjudikatzeak goi-kargudunen eta zuzendari publikoen bateraezintasunen eremuan indarrean dagoen ordenamendu juridikoa urratzen duen ala ez.

5.- Horrenbestez, Etika Publikorako Batzordearen egitekoa interesdunaren jarduna EJKn aurreikusitako balio, printzipio, jokabide, jarrera eta portaerekin bat datorren zehaztea izango da.

6.- Etika Publikorako Batzorde honen jarduera-eremuari dagokionez, (...) jaunak aurkeztutako salaketan eskatzen da (...), (...) jauna (...) Saileko (...)ren zuzendari zela eta (...)ko Administrazio Kontseiluko idazkari, (...) enpresari egindako esleipenak aztertzeko.

7.- (...) jaunak Etika Publikorako Batzorde honi igorritako idazkian adierazten denez, (...) jauna 2020ko irailaren 18az geroztik da (...)ren zuzendaria; 2017an utzi zion (...) enpresan lan egiteari; hau da, igarota zeuden jada hiru urte baino gehiago zuzendari postu horretarako izendatu zutenerako.

Bestetik, (...) jaunak (...) jaunak egindako kontsultari erantzuteko bidali digun idazkian adierazi digu 2020ko irailaren 25etik 2021eko martxoaren 31ra izan zela (...)ko Administrazio Kontseiluko idazkari, eta ordurako ere igaroak zirela jada hiru urte baino gehiago (...)n lan egiteari utzi zionetik.

8.- Alde horretatik, eta hala adierazten da Etika Publikorako Batzorde honi igorritako kontsultan, Kargu Publikodunen Etika eta Jokabide Kodearen Testu Bateginak 11.3 g) artikuluan adierazten du legez arautuko direla kargu publiko bihurtu aurreko jarduerekin edo kargu publiko bat bete ondoren egiten diren jarduera profesionalekin lotutako interes-gatazkak.

Adierazi denez, arauketa hori Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean dago jasota gaur egun.

9.- Aipatutako 1/2014 Legeak 10.2 artikuluan ezartzen du kargu publikodunek ez dutela *“parte hartuko zenbait enpresa, sozietate edo erakunderen interesak ukitzen dituzten gaietan edo gai horien inguruko erabakietan, baldin eta beren zerbitzu-harremana hasi aurreko bi urteetan enpresa, sozietate edo erakunde horietako zuzendaritza- edo gobernu-organoetan kargu publikodun gisa izan badira...”*

Hala ere, gorago adierazi den bezala, Etika Publikorako Batzorde honi bateraezintasunen arloan indarrean dagoen ordenamendu juridikoa urratu den edo ez zehaztea ez badagokio ere, kargua utzi eta kontratua esleitu bitartean igarotako denbora kontuan hartuta, esan daiteke; aipatutako 1/2014 Legeari dagokionez, ez zegoela arrazoi horrengatik parte ez hartzeko edo inhibitzeko betebeharririk; hala aitortzen du (...) jaunak ere salaketa-idazkian.

Lau urte igaro ziren (...) jaunak (...) enpresako langile izateari utzi zionetik (2017an utzi zuen) (...)k enpresa horri esleipenak egin zizkion arte (2021. urtea). Nolanahi ere, adierazi behar da kontsulta-idazkian aipatzen diren bi esleipenetatik batean, zehazki, Donostiako Metroaren Mirakontxa-Easoko 2. faseko obra-zuzendaritzako kontratua esleitu zenean, (...) jauna ez zela (...)ren Administrazio Kontseiluko idazkari.

(...) jaunak (...) enpresan lan egiteari utzi zionetik Bilboko Hegoaldeko Tren Saihesbidearen 1. faseko B lotearen eraikuntza-proiektua idazteko kontratua esleitu zen arte lau urte igaro ziren arren, komenigarria izango zatekeen, esleipen horrek zer zalantza sor dezakeen ikusita, Etika eta Jokabide Kodearen 5.2.4 eta 11.3 apartatuetan aipatzen diren kautelazko edo prebentziozko mekanismoak aktibatzea: abstenitzea edo, hala balegokio, Etika Publikorako Batzorde honi alde aurreko kontsulta egitea.

Aurreko beste hainbat erabakitan gogora ekarri dugun bezala, EJKren helburuak dira, batetik, *“guztiz baztertzea erabaki edo ebazpen bat hura hartzen duen pertsonaren mesederako dela [...] nahiz edozein motatako interes partikularrek eragindakoa izan daitekeela pentsaraz dezakeen edozein susmo edo zalantza”*, eta, bestetik, saihestea *“pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo faboritismo-nahiak eraginda jokatu dela adieraz dezakeen edozein susmo pitz dezakeen ezer”*.

Horri esker, jarduketa horretan interes-gatazka bat egon litekela pentsaraz dezakeen edozein zalantza edo susmo saihestu ahal izango zen, eta, batez ere, herritarrentzako eredu izango zen, erakundeekiko konfiantza berreskuratzeko helburu horretan.

10.- (...) jaunak bidalitako kontsulta-idazkian aitortzen du, eta halaxe adierazten du berariaz, kontratuaren esleipena enpresan lan egiteari utzi eta bi urte baino gehiago igaro ondoren egin zela, eta, beraz, ez dela legea urratzen.

Etika Publikorako Batzorde honi igorritako idazkian hau ere adierazten du: “2 urtetik beherako epea jazotzen bada, 1/2014 legearen urraketa egiten da. Baina... eta esandako epea pixka bat handiagoa denean? 2 urteko epea izan ordez, adibidez, 3 urteko epea denean? Antza, ez omen litzateke legez kontrakoa; baina izango al litzateke etikoa? Etika Publikorako Batzordeak halako kasuen gainean ere iritzia eta gomendioa eman lezake, ebazpen bidez. Eman beharko luke, legebiltzarkide honen iritziz”.

11.- Horren harira, adierazi behar dugu ez dagokiola EPB honi epeari buruz erabakitzea. 1/2014 Legeak II. kapituluaren arautzen ditu Kargu Publikodunen Jokabide Kodea arautzen duten printzipio orokorrak. Kapitulu horretan, EAEko Administrazioaren zerbitzura dauden kargu publikodunek parte ez hartzeko eta inhibitzeko betebeharrak ezartzen da, eta halaber, xedatzen da ez dutela parte hartuko zenbait enpresa, sozietate edo erakunderen interesak ukitzen dituzten gaietan edo gai horien inguruko erabakietan, baldin eta beren zerbitzu-harremana hasi aurreko bi urteetan enpresa, sozietate edo erakunde horietako zuzendaritza- edo gobernu-organotik kargu publikodun gisa izan badira.

1/2014 Legea 2014ko ekainaren 26an onartu zuen Eusko Legebiltzarrak, eta organo horri dagokio bateraezintasunen araubidea ezartzea, bai eta egoki iritzitako abstentzio- eta inhibizio-epreak ezartzea ere, eta Etika Publikorako Batzorde honi ez dagokio eta ezin du, gainera, legegilearen borondatea ordeztu.

(...) jaunak uste badu gaur egun ezarrita dagoen epea ez dela egokiena, dagokion legebiltzarreko izapidea egin beharko du, lege-aldaketa eskatu eta egoki iruditzen zaiona erdiesteko.

12.- Bidalitako kontsultan planteatzen den bigarren gaia (...) jaunak (...)ko zuzendari gisa egindako jardueri buruzkoa da. Idazki horretan adierazten da kargu hori zuen bitartean, (...)k egindako 12 plan eta azterlanen ingurumen-ebaluazioak onetsi zituela, eta ez zirela bi urte igaro aipatu enpresarekin zuen lan-harremana amaitu zuenetik.

EPB honi bidalitako idazkian 12 kasu aipatzen dira, zeinetan adierazten baita (...) jaunak, (...)aren zuzendari zela, enpresa horrekin erlazioatutako ingurumen-txostenak egin zituela.

13.- Aurretik adierazi denez, 1/2014 Legeak parte ez hartzeko eta inhibitzeko betebeharrak ezartzen du 10. artikuluan. Hala, artikuluko horren 2. apartatua xedatzen du kargu publikodunek

ez dutela *“parte hartuko zenbait enpresa, sozietate edo erakunderen interesak ukitzen dituzten gaietan edo gai horien inguruko erabakietan, baldin eta beren zerbitzu-harremana hasi aurreko bi urteetan enpresa, sozietate edo erakunde horietako zuzendaritza- edo gobernu-organoetan kargu publikodun gisa izan badira...”*

(...) jaunak izan zuen alegazio-izapidean, adierazi zuen (...) enpresarekin zuen harremana lan-esparrura mugatu zela, enpresako langile izan zela eta ez zuela inolako parte hartzerik izan kapital sozialean, ez eta beste sozietate-harremanik ere.

14.- Ingurumen-ebaluazioari dagokionez, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren helburua da *“ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea”*. Eta, horrenbestez, ingurumenaren babes-maila handia bermatzen du lege horrek, garapen jasagarria sustatzea helburu hartuta.

Aipatutako 21/2013 Legeak ingurumen-ebaluazioa zer proiektuk behar duten arautzen du. Eta organo substantiboaren definizio hau dakar: *«“Organo substantiboa”. Administrazio publikoaren organoa, bai plan edo programa bat abian jartzeko edo onesteko, bai proiektu bat baimentzeko, bai erantzukizumpeko adierazpena edo alde aurreko jakinarazpena egin beharreko proiektuen jarduera kontrolatzeko eskumenak dituen, baldin eta proiektua ez bada Estatuko, autonomia-erkidegoetako edo tokiko administrazio publikoen zenbait organo desberdinen eskumeneko alorretako jarduketa desberdinen multzoa. Kasu horretan, organo substantibotzat joko da, lehentasunez, proiektuaren xede den jardueraren alorreko eskumenak dituen organoa, harekiko jarduera instrumental edo osagarrien alorreko eskumenak dituzten organoen aurretiko»*.

(...) jaunak egindako kontsultan aipatzen diren kasu guztietan, organo substantiboak haren idazkian aipatzen den udaletako bakoitza izan dira, eta horiek eskatu dute ingurumen-organoaren (1) iritzia, kasu honetan (...)aren Zuzendaritzarena; organo horrek, baina, ez du parterik hartu ingurumen-ebaluazioa egin duen enpresaren edo enpresen kontratazioan.

15- Bestalde, (...) Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuaren 10.2 artikuluan ezarritakoaren arabera (ingurumen-txostenak egin zirenean indarrean zegoen dekretua), (...)aren Zuzendaritzari dagokio, besteak beste, planen eta

¹ *«“Ingurumen-organoa”. Administrazio publikoaren organoa, irismeneko dokumentua egiten duena, hala dagokionean; ingurumen-ebaluaziorako espedienteen azterketa teknikoa egiten duena, eta ingurumen-adierazpen estrategikoak, ingurumen-txosten estrategikoak, ingurumen-inpaktuaren adierazpenak eta ingurumen-inpaktuaren txostenak egiten dituen»*.

programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedurak eta proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedurak izapidetzea eta ebatzea.

16.- Behin aztergaia zentratuta, EJKren 5.2.4 apartatuak, inpartzialtasunaren eta objektibotasunaren printzipioak nabarmentzen dituenak, honako hau xedatzen du: *“kargu publikodunek beti jokatuko dute inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioen arabera, erabakiak hartzeko prozesuetan eta, bereziki, beren eskumenak erabiliz egiten dituzten ekintzetan”*.

Mandatu horrekin estuki loturik, 5.2.7. apartatuak dioenez, goi-kargudunek eta parekatuek *“beren funtzioak zuzen betetzea eragotz edo traba dezaketen interes publiko edo pribatu oro aitortu behar dute, eta beharrezko urratsak egingo dituzte edozein interes-gatazka konpontzeko, organo eskudunei horrelako edozein gorabehera jakinaraziz, garrantzi txikienekoa izanda ere. Horrek esan nahi du erabaki guztiak interes publikoaren eta herritarren onurarako hartu behar direla, eta horretarako bakarrik, guztiz baztertuz, ebazpen edo erabaki bat erabakia hartu duenaren, haren familiakoen, ezagunen edo lagunen mesederako dela edo edozein eratako interes partikularrek eragindakoa dela pentsaraz dezakeen susmo edo zalantza oro”*.

Aurrekoarekin lotuta, EJKren 5.2.1.3 artikulua EAEko Administrazioako kargu publikodunek *“inpartzialtasun-, zintzotasun- eta objektibotasun-printzipioak”* nahitaez errespetatu beharri egiten dio erreferentzia: *“irizpide independentea izango dute, interes partikular oro baztertuz”*. Halaber, *“ez dute parte hartuko beren objektibotasunari eragin diezaiokeen kausaren bat duten gaietan”*.

Bide horretatik, EJKren 6. artikuluan xedatzen da kargu publikodunek ez dutela *“jardungo pertsona baten edo erakunde publiko zein pribatu baten alde, eta ez dute egingo pertsona edo erakunde horien alde jardun dutela pentsatzera eramanez dezakeen susmorik sor dezakeen ezer”*. Are gehiago, 11.3.e) artikuluan hau xedatzen da: *“Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako eta bere Sektore Publikoko kargu publikodunek, baldin eta beren betebeharrekin eta erantzukizunekin talka egiten duen edo egin dezakeen interes-gatazka baten eraginpean badaude, berehala eman beharko diote horren berri Etika Publikorako Batzordeari eta, hala bada, gogokio, euren abstentzioa formalizatuko dute Langileen Erregistro Zerbitzuan, non adieraziko baitute (ahal bada, idatziz) gatazka horren aurrean daudela, edo, behintzat, une horretan edo etorkizunean interes-gatazka bat egon daitekeela pentsatzera daramatzan susmoa dutela”*.

17.- Zuhurtzia are beharrezkoagoa da 1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen onartu ondoren. 10. artikuluan, parte ez hartzeko eta inhibitzeko betebeharra agintzen die kargu publikodunei *«beren interesak, ezkontide edo izatezko bikotekidearenak edo laugarren mailara arteko odolkidetasumeko edo ezkontza-ahaidetasumeko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatzen dituztenak agertzen edo bultzatzen diren jarduerak, erabaki edo ekimenetan»* edo *«zenbait enpresa, sozietate*

edo erakunderen interesak ukitzen dituzten gaietan edo gai horien inguruko erabakietan, baldin eta beren zerbitzu-harremana hasi aurreko bi urteetan enpresa, sozietate edo erakunde horietako zuzendaritza- edo gobernu-organoetan kargu publikodun gisa izan badira bai kargu publikodunak berak bai ezkontide edo izatezko bikotekideak edo bigarren mailara arteko odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko senideak edo berekin interes partekatutak dituzten hirugarren pertsonak».

Beste behin ere, Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritza-eginkizun gorenaren integritatea eta zintzotasunaren irudia babesteko kautela horiek betetzeak duen garrantzia gogorarazteaz gain, ez da garrantzirik gabeko kontua (...) jauna (...)ko zuzendaritza- edo gobernu-organoetako kide ez izatea, eta, gainera, gaur egun ez du (...)aren zuzendari-kargurik. Beraz, (...)aren Zuzendaritzak une honetan ingurumen-txostenak egin behar dituen kasuetan abstentzioa eskatzeko edozein gomendio zentzugabea dela uste dugu.

18.- EPBk beste behin ekarri nahi du gogora zenbateko garrantzia duen EJKn aurreikusitako zuhurtzia-neurriak betetzeak, lan- edo zuzendaritza-zereginetan aritu diren goi-kargudunen edo parekatuen jardueri dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren goi-zuzendaritzaren zuzentasun eta zintzotasun irudia ez kaltetzeko.

Horiek horrela, EJK-k zehaztutako jokabide etikoaren atalaseak segurutzat jotzen ditu Eusko Jaurlaritzaren goi-mailako karguek eta parekatuek legeak betetzea. Eta oinarritzko plataforma hori, herritar guztiek dutena, ardatz hartuta, hainbat jarrera eta jokabide zehazten ditu, legez daudenak baino zorrotzagoak direnak. Gehigarri etiko bat da hori, juridikoki eskatzerik ez dagoena –legean berariaz jasota ez baitago–, baina bai ageri dela kodearekin bat egiten duten pertsonak onartutako konpromiso politikoaren barruan; hortaz, EPB honek hori betetzen den aztertu eta ebaluatu ahal du, bai eta, hala badagokio, horren gaineko irizpena eman ere.

Oinarritzko legezko eskakizunaren eta eskakizun etiko gehigarri edo osagarriaren arteko harreman-eredu hori grafikoki islatuta dago EJKren 13.b) apartatuan, non, gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko jokabide eta portaerei dagokienez, xedatzen baitu eredu hori betetzeko konpromisoa hartzen dutela kargu publikodunek, bai eta beste hau ere: *”publizitate aktiboaren printzipioa benetan betetzea garatuko dute, dagozkien sail zein erakundeetan gardentasuna bermatze aldera, eta behar den heinean, legez ezarritako obligazioak betetzeaz gain, bai ekintzei, bai sail zein erakundeen politika edo jardueri gardentasun-gehigarri bat eransten ahaleginduko dira”*.

19.- EPB honek aurretik ere adierazi izan du goi-kargudunek eta parekatuek, Administrazioaren izenean, goi-kargudun izendatu aurretik lan-zerbitzuak eman edo zuzendaritza-eginkizunetan aritu diren sozietateekin kontratuak egin nahi dituztenean interes-gatazka izan dezaketela, eta,

ondorioz, EJKren 11.3 apartatuan aurreikusitako kautelak eta prebentzioak hartu behar dituztela nahitaez; aipatutako neurri horiek kutsu profilaktiko garbia dute eta "interes-gatazka saihestea dute xedetzat, jakina, baina harago ere joaten dira: horrez gain, goi-mailako kargudunen eta parekatuen jardunetan interes-gatazka dagoela adieraz dezaketen zalantza edo susmo guztiak ezabatu nahi dituzte errotik. Horiek irakurrita, erraz ondoriozta daiteke EJK-k finkatutako zuzentasun eta desinteres subjektiboko estandarri dagokionez sor litezkeen desbideratzeak saihestu ez ezik, desbideratzeen balizko existentziaren inguruko zalantza oro ere uxatu nahi dutela".

20.- Beraz, adierazi den bezala, ez dagokio Etika Publikorako Batzorde honi zehaztea interesdunak, (...)ko zuzendaria dela, goi-kargudunen eta zuzendari publikoen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen ordenamendu juridikoa urratu duen zerbitzuak eman zituen enpresaren ingurumen-txostenak egitean.

Hala ere, aurreko paragrafoetan adierazi ditugun arrazoiak direla eta, interes-gatazka bat edo gatazka hori egon daitekeela ikusten bada, kontsulta bat egin behar zaio EPB honi, kautelazko neurri gisa, eta, hala badagokio, kargu publikodunek eta parekatuek, erakundearen prestigioa babeste aldera, uko egingo diote erabakiak hartzeko edozein prozesutan parte hartzeari, baldin eta interes-gatazka bat gertatzeko susmorik txikiena badago.

Kargu publikodun eta parekatuek, aurreko atalean aurreikusitako egoeretako batean badaude, nagusi hierarkikoaren esku utzi beharko dituzte beren ardurak, edo, bestela, egoera horietako ezeinetan ez dagoen saileko edo erakundeko beste kargu publikodunen baten esku.

21.- EJKren xede da, aurretik esan dugunez, batetik, guztiz baztertzea erabaki edo ebazpen bat hura hartzen duen pertsonaren mesederako dela nahiz edozein motatako interes partikularrek eragindakoa izan daitekeela pentsaraz dezakeen edozein susmo edo zalantza, eta, bestetik, saihestea pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo favoritismo-nahiak eraginda jokatu dela adieraz dezakeen edozein susmo pitz dezakeen ezer.

Nahikoa da goi-kargudun edo parekatuaren jardunbideak arrazoizko zalantza bat sortzea edo sortu ahal izatea haren zintzotasun, inpartzialtasun, integritate edo objektibotasunari buruz, kodearen 5.2.4 eta 11.3 apartatuek hizpide dituzten kautelazko edo prebentziozko mekanismoak abian jartzeko: parte hartzeari uko egitea edo, bestela, aldeztu aurretik EPB honi galdetzea. Lehen kasuan, EJK-k ezartzen du goi-kargudunek eta parekatuek ez dutela gai baten berri izan behar beren jardutearen zintzotasun, integritate eta objektibotasunaren inguruan sor daitezkeen susmo edo zalantza oro uxatzeko, eta "*beren ardurak hierarkian gainean dutenaren esku utzi behar dituztela, edo bestela, baldintza horien eraginpean ez dagoen saileko edo erakundeko beste kargu publikodun baten esku*". Bigarren kasuan, EPB honek berak egingo luke dagokion proposamena edo gomendioa, aurrez eskatuta.

22.- Azken finean, prebentziozko edo kautelazko neurriak dira, gehienetan, interes-gatazkak saihestea helburu dutenak, jakina. Baina, horrez gainera, neurri horien xedea da goi-kargudun eta parekatuen jardueri lotutako balizko interes-gatazken inguruan sor daitezkeen kezka edo susmo guztiak errotik etetea.

Horrenbestez, ingurumen-ebaluazioei buruzko espedienteen izapidetzea akats gabea izan arren eta benetako interes-gatazkarik antzeman ez den arren, aurrez aipatutako atalen bidez EJK-k lortu nahi duena da guztiz baztertzea erabaki edo ebazpen bat hura hartzen duen pertsonaren mesederako dela nahiz edozein motatako interes partikularrek eragindakoa izan daitekeela pentsaraz dezakeen edozein susmo edo zalantza, eta saihestea pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo faboritismo-nahiak eraginda jokatu dela adieraz dezakeen edozein susmo pitz dezakeen ezer.

Era berean, Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) testu bateginaren hitzaurrean jasotzen denaren arabera, kode horren helburua da “eredugarritasuna sustatzea integritatearen bidez, erakundearen irudia zaintzea, haren eraginkortasuna indartzea eta bermatzea herritarrek erakundeetan duten konfiantza ez dutela galduko”.

Zintzotasun eta interes subjektiborik ezaren printzipioei dagokienez, EJKren 5.2.7. artikuluan jasotzen da EAEko Administrazioaren kargu publikodunek beren funtzioak zuzen betetzea eragotz edo oztopa dezaketen interes publiko edo pribatu oro aitortu behar dutela, eta beharrezko urratsak egingo dituztela edozein interes-gatazka konpontzeko, organo eskudunei horrelako edozein gorabehera jakinaraziz (baita garrantzi txikikoa izanda ere).

Eredugarritasun-printzipioari dagokionez, berriz, EJKren 5.2.9 artikuluan xedatzen da EAEko Administrazioaren kargu publikodunek ez dutela ezer egin behar edo egin gabe utzi behar, baldin eta horrek kalte egiten badio Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ospe, duintasun eta irudi instituzionalari (baita kalte oso txikia izanda ere). Hartara, ez da gutxituko herritarrek sistema instituzionalean duten konfiantza. Aurretik adierazitakoaren harira, 6. artikuluan hauxe gehitzen da: kargu publikodunek “ez dute jardungo pertsona baten edo erakunde publiko zein pribatu baten alde, eta ez dute egingo pertsona edo erakunde horien alde jardun dutela pentsatzera eraman dezakeen susmorik sor dezakeen ezer”.

23.- Orain arte adierazitakoa kontuan hartuta, Etika Publikorako Batzorde honek uste du ezen, lan-harremana izan zuen enpresarekin zerikusia zuten gai edo erabakietan esku hartu aurretik, kontsulta bat egin behar zitzaiola Etika Publikorako Batzordeari, eta, Batzordeak hala uste izan balu, ez zuela erabakietan parte hartu behar, interes-gatazka bat zegoelako.

24.- Gobernu Kontseiluaren 2015eko martxoaren 2ko Erabakiaren bidez egindako aldaketaren ondoren, EJKren 16.3.2 apartatuak hau xedatzen du:

16.3.2.– Sinesgarriri egiaztatzen denean kode honetan jasotako etika- eta jokabide-arauak urratu direla edo ez direla behar adina bete, Etika Publikorako Batzordeak honako neurri hauetakoren bat hartzea proposatuko dio dena delako kargu publikoa izendatzeko eskumena duen organoari, kontuan hartuta betiere zer-nolako larritasuna izan duen gertakariak, zer eragin publiko duen eta zer ondorio ekarri dizkion irudi instituzionalari:

b) Egiaztatutako gertakarien larritasunarekin bat datozen bestelako neurri batzuk, zehapena izan gabe, eraginkorrak izango direnak kargu publikodunen jardunbidea alderdi etikotik zuzentzeko, arztezeko eta hobetzeko.

Hori guztia aintzat hartuta, Etika Publikorako Batzordeak hau erabaki du, aho batez:

ERABAKIA:

1.- Ez dagokio Etika Publikorako Batzorde honi Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeak ezartzen duen bi urteko epea egokia den edo ez erabakitzea.

2.- (...) jaunak “ez du behar bezala bete” Etika eta Jokabide Kodea Ingurumen Administrazioaren zuzendari gisa egindako ingurumen-txostenei dagokienez, Etika Publikorako Batzorde honi kontsultarik egin ez diolako edo ingurumen-txostenen berri izateari uko egin ez diolako, bere ardurak nagusi hierarkikoaren esku utzita edo, bestela, (...)ren egoeran ez zegoen bere sail edo erakundeko beste kargu publikodun baten esku utzita.

3.- EJKren 11.3.e) apartatuan aurreikusitako EPB honi kontsulta egiteko obligazioa “behar bezala bete ez” denez, proposatzen dugu, EJKren 3.2 apartatuan xedatutakoarekin bat, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian egoera horren berri emango duen publizitate-ohar bat txertatzea.

4.- Azkenik, gomendatzen dugu interes-gatazka egon daitekeela adierazten duen zantzurik txikiena dagoenean edo interes-gatazka egon daitekeela susmorik txikiena dagoenean, kargu publikoek eta parekatuek ez dezatela parte hartu erabakiak hartzeko inolako prozesutan, erakundearen ospea babesteko kautelazko neurri gisa.

Kargu publikodun eta parekatuek, aurreko atalean aurreikusitako egoeretako batean badaude, nagusi hierarkikoaren esku utzi beharko dituzte bere ardurak, edo, bestela, egoera horietako ezeinetan ez dagoen saileko edo erakundeko beste kargu publikodunen baten esku, edo, bestela, Etika Publikorako Batzorde honi kontsulta egin.

Olatz Garamendi Landa

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 20a